

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN 2018KO KONTU OROKORRAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.

Joan den urriaren 29an Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko Bilkurak aho batez onartu zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2018ko Kontu Orokorraren fiskalizazio txostena; kontu orokorra Bizkaiko Foru Aldundiaren (BFA), Gizarte Urgazpenerako Foru Erakunde Autonomoaren (GUFÉ) eta Enpresa Sektore Publikoa (ESP) osatzen duten hogeitun erakundearen kontuek osatzen dute.

Urteko kontuei dagokienez, HKEEk **aldeko iritzia** plazaratu du kasu guztietarako, salbuespenik gabe.

Txostenak fiskalizazio-gai izan den Kontu Orokorraren **finantza egoera** aztertu du eta azpimarratu du eskubide kitatuen egikaritze aurrekontu egindakoa baino 87 milioi handiagoa izateak eta gastuaren egikaritze aurrekontu egindakoa baino 83,9 milioi euro txikiagoa izateak **aurrekontu arruntaren emaitza 170,9 milioi euro** izatea eragin duela. **Zorpetzeak behera egin du** 40,8 milioi euroan, enpresa sektore publikoarena barne.

Epaitegiak, berebat, **aurrekontuaren egonkortasun eta finantzaren iraunkortasun helburuak bete direla** adierazi du. Kontu Orokorrean jasotako Aurrekontuaren Egonkortasun eta Finantzaren Iraunkortasunari buruzko txostena Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailetza Nagusiari eta Erantzukizun Fiskaleko Agintaritzari Independenteari igorri zitzaizkien eta horiek ez dute salbuespenik adierazi.

Bai Aldundiak, bai GUFÉk eta bai ESP osatzen duten erakundeek ere **zuzentasunez bete dute** ekonomia eta finantza jarduerara arautzen duen **lege arautegia**, nahiz unean uneko ez-betetzeak azaleratu diren Langileen eta Kontratazioaren atalean; hona hemen, bada, batetik **Langileen atalean egin diren ez-betetzeak**: BFAk ordaindutako hainbat sari eta kalte-ordain PFEZtik salbuetsitakotzat jo dira, Langileen Estatutuan aurreikusitako kausak egiaztatu gabe; BFAko eta GUFÉko langileen berariazko osagarria handitu da, horren izaera eraldatuz; Azpiegiturak-ek txanda-kontratu batetik eratorritako aldi baterako lan kontratu bat mugagabe bihurtu du, hautaketa-prozesurik gauzatu gabe; bestetik, hona hemen **Kontratazioaren ataleko ez-betetzeak**: ESPko lau erakundetan, 0,7 milioi euroren erosketak egin dira publikotasun eta lehia printzipioak bete gabe; ESPko erakunde batek kontratu bat esleitu du arautze harmonizatuari

lotutako kontratuen prozedura- eta publikotasun-arauak bete gabe; BOSek esleitutako kontratu batean aurreikusitako kopurua gainditu da dagokion aldaketa onartu gabe; eta BFAk, Aparkabisak eta Garbiker-ek esleitutako bi kontratu eta esparru-akordio ba luzatu dira, mugaeguna gaindituz.